

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoko ofizial, ofizialorde eta lehen agente lanpostuak barne-sustapen bidez betetzeko deialdia onestea

2020ko uztailearen 10ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udaleko ofizial, ofizialorde eta lehen agente lanpostuak barne-sustapenaren bidez betetzeko eskaintza onetsi zuen.

Vitoria-Gasteizko Udalak, agintaldi honetarako helburuen artean, Aurrekontu Orokorren Legeak baimendutako sustapen eta enplegu eskaintza publikora deitzea proposatzen du, udal egitura sendotzeko eta udalaren zerbitzura dauden langileen administrazio karrera sustatzeko neurri gisa.

Kontuan izan da Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 16. artikulua — apirilaren 13ko 7/2007 Legea — xedatzen duenez, karrerako funtzionarioek lanbide-sustapena izateko eskubidea dutela, eta 18. artikuluan ezarritakoaren arabera barne-sustapena egiteko hautatze-prozesuetan berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak errespetatuko direla, baita aipatutako legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoak ere.

Kontuan izan da 6/1989 Legearen 69.2.c artikuluan jasota dagoenez funtzionarioek administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea izango dutela. Lege beraren 46. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da lanpostuak betetzeko modua, eta 2 artikulua dioenez, behin-behineko lan-izendapena duten funtzionarioek, egoera horretan dauden bitartean, derri-gorrez parte hartu beharko dute beren kidego edo eskaletako lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan.

Azkenik, deialdien argitalpenei dagokienez, deialdiak eta oinarriak BOEn argitaratuko dira, Estatuko Administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta lanbide sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak 15. artikuluan xedatzen duenari jarraiki.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 24. artikulua xedatzen duenez, lan eskaintza publikorako eskaintzak EHAAn edo Foru Aldundi edo Udal Batzarrenak badira, Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratuko dira. Azken kasu honetan, EHAAn ere argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– 127. artikuluan aintortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez Giza Baliabideen arloko zinetziaren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Arloko zinetzi ordezkariek erabaki proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Vitoria-Gasteizko udaleko Udaltzaingoko barne-sustapenerako eskaintza onestea: ofizialen 5 lanpostu (2 derrigortasun-data dutenak eta 3 derrigortasun datarik gabeak), ofizialordeen 5 lanpostu (bat derrigortasun-data duena eta 4 derrigortasun datarik gabeak) eta lehen agenteen 5 lanpostu (derrigortasun datarik gabeak); datu hauen arabera:

LANP. KODEA	LANPOSTUA	MATRIKULA	HIZK. ESK.	DATA DERRIGORTASUNA	GUZTIRA
8005	Ofizialak	349	2	2013/12/20	
		350	2	2013/12/20	
		351	2	0000-00-00	
		352	2	0000-00-00	
		8727	2	0000-00-00	
	Ofizialak, guztira				5
8009	Ofizialordeak	355	2	1999/02/01	
		361	2	0000-00-00	
		8930	2	0000-00-00	
		8932	2	0000-00-00	
		8933	2	0000-00-00	
	Ofizialordeak, guztira				5
8011	Lehen agenteak	370	2	0000-00-00	
		387	2	0000-00-00	
		389	2	0000-00-00	
		395	2	0000-00-00	
		9002	2	0000-00-00	
	Lehen Agenteak, guztira				5
	Lanpostuak, guztira				15

Bigarrena. BOE, EHAA eta ALHAOn argitaratzea udaltzaingoko barne-sustapenerako eskaintza hau.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 1ean

Giza Baliabideen zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE